

ORREAGAKO GATAZKA, EUSKALDUNON GARAIPEN HAUNDIA

“**G**au erdia da. Karloman erregea Aurizperrin dago bere gudaritza eta guzti. Zeruan ez da ilargirik ez eta izarrik ere ageri. Urrutira, mendietan, sugarrek ditziratzen dute. Frankoak herrian kantatzen ari dira; otsoak berriz intzirika Astobizkarren. Euskaldunek bitartean, beren jaurtigailu eta aizkorak zorrozten dituzte Ibañetako harkaitzetan...”.

Honelaxe hasten zaigu 1850. urtean nafar euskaltzale haundia izan zen Arturo Kanpionek, gure arbasoek Orreagan izandako garaipena kontatzeko egindako kanta zoragarria. Gaur mila ehun ta larogeita hamazazpi urte igaro dira jadanik, baina hala eta guztiz ere, Orreagakoaren oroimenak bizi-bizirik baitirau gure artean. Agian, gaurko euskaldunok beste Orreaga baten premian gaudelako. Ikus dezagun segidan labur-labur Orreagan, 778ko abuztuaren 15ean gertatu zena.

1.- FRANKO ETA PENINTSULAKO MAIRUEN ARTEKO HARREMANAK

756. urtean Kordobako Abderraman I.ak bere burua emire independente gisa jo zuen. Eginkizun honen bitartez Damaskoko emire haundiekiko zuen lotura arras ebaki zuelarik. Denboraren poderioz gero eta emire gehiago saiatu ziren Kordobakoak egindako gauza bera errepikatzen, eta ondorioz hamaika emirerri independente sortu ziren. Emire edota waliren arteko harremanak oso aldakorrak izan ziren, baketsuak askotan, gerrazkoak gehienetan, eta ondorioz hamaika gerla eta gatazka odoltsu piztu ziren beraien artean.

777.ean, Zaragozako walia (gobernadore antzekoa) zen Sulaymenben-al-



Arabi ospetsuak, Kordobako emirearekin zuen lotura hautsi egin zuen. Abderramanen erantzuna laster iritsi zen Zaragozako ateetara, armada haundiaz bilakaturik, baina zorioneko kolpe iaio batez, Zaragozako gerlariak armada kordobatarren buruzagia inguratu eta preso hartu egin zuten, armada etsaiaren atzeratzea lortuz. Baina bildur zeuden Zaragozako mairuak, Abderramanen mendekuaren zain baitzeuden, eta hau dela eta sajoniarrak garaitu berriak zituen Erromatar-Germaniar Inperio Sakratuaren buru zen Karlomagno enperadore frankorengana jo zuten laguntza bila. Badirudi, Karlogmano eta Suleyman Paderbornen bildu zirela, eta bilera honen fruitu jaio zela bi agintarien arteko hitzarmena.

Suleymanek egindako laguntza eskaera izugarri gustatu zitzaion Karlomagnori, aspaldian baitzebilan aitzeki bila, Iberiar Penintsulako lurraldeetan sartzeko, eta bere erresumak Kordobako mugetaraino zabaltzeko. Eta orain Zaragozako wali independenteak egindako eskaerari esker, bere ametsak errealitate bihurtzeko zorian zegoen.

2.- KARLOMAGNO ETA EUSKAL HERRIA

Bere asmoak aurrera eraman ahal izateko, Karlomagnok armada ikaragarri haundia antolatu zuen. 778. urtean armada honen erdiak, ekialdeko Auñamendiak, Aragoitik, zeharkatuz gero, Hego Katalunian sartu ziren zen-bait herri eta bailara konkistatuz. Bitartean, armadaren beste erdiak Euskal Herrira sartu zitzaizkigun Nafarroa Beheretik, eta garai hartan euskaldunon hiri nagusia zen Iruñearen aurrean kokatuz. Trikimailu baten bitartez, Karlomagnok Iruñea hartu eta bertan guarnizio franko bat utzi ondoren, Zaragozarako bidea hartu zuen.



Han, Zaragozan, gauzak ez zitzaizkion berak nahi bezain ongi atera, Suleymanek frankoek ekarritako armadaren bildur, ez baitzion hiriko atea zabaldu. Karlomagnok hiria hesitu zuen, baina sajoniarren matxinada berria zela eta bere inperiora itzultzeko beharrean aurkitu zen. Frantzia aldera zihoalarik, baina berehalaxe itzultzeko asmoz, Iruñeko harresiak goitik behera bota



zituen. Honekin, bi helburu bete nahi zituen: alde batetik inolako erresistentziarik gabeko itzulera xiurtatzea, eta bestaldetik bere etsai haundiak ziren euskaldunak inolako defentsarik gabe uztea.

Hau ikusirik, euskal leinu ezberdinak batu egin ziren, gutxitan egiten zuten bezalaxe, eta Orreaga aldean, Altabizkarko mendipausuan izkutaturik, frankoen armadaren zain kokatu ziren. Frankoen erretagoardia igarotzerakoan, euskaldun gerlariak eraso egin zieten aldameneko gailurretatik, enperadorearen iloba zen Errolan mitikoaren agindupeko tropa guztiz suntsituz. Gure arbasoek Altabizkarren lortutako garaipena erabatekoa izan zen. Han hil ziren Errolan eta Frantziako hamabi pareak, han izan zen lehendabiziko aldiz garaituta, ordurarte Europa osoan garaitezina zirudien armada, eta han, Orreagan apaldu zen betiko Karlomagno enperadorearen harrokeria. Lehen aipaturiko kantan, honela dio Arturo Kanpionek, Altabizkarrako garaipena argi azaldu nahirik:

*“Eguzkiari txinparta dagio mendian.
Karloman iheska doa burrukatu eta
menperaturik,—bere kapusaio gorri eta
luma beltzeko zapelaz— Haurrak eta
emaztekiak Ibañetan dantzan dabiltz,
eta mendiko bistan haien irrintziak
zeruetaraino igoten dira”.*

Dirudienez, garaipen honek oso eragin handia eduki zuen euskal leinu ezberdinen arteko batasuna gauzatzeko orduan, eta handik urte batzuetara sortuko zen Iruñeako (Nafarroako geroago) Erresumaren jaiotza erditzeko balio izan omen zuen.

3.- ORREAGAKO GATAZKA ETA LEZO

Balizko uztartze honetaz hitz egitea zientzia-fikzioa den arren, kontuan izan 1203. urte arte ez dugula Lezori buruz, inolako datu zehatzik, eta izatekotan zenbait arrantzaleen etxe eta baserri egongo zirela, ez besterik, aipa dezakegu ondo-ondoan daukagun Pasai Donibanen dagoen harrizko oroitarria. Oroitarri hontan esaten zaigunez, bertako gizonak Orreagara abiatu omen ziren gatazkan parte hartzera. Egia edo “a posteriori” sortutako



kondaira ote den, hori beste kupelako sagardoa daukagu. Baina Pasai Donibanetik joan baziren Ibañeta aldera, hemengo bailaran bizi zirenek, beste hainbeste egingo zutela baieztatu daiteke.

4.- EUSKALDUNOK ORREAGAN IZANDAKO BESTE BI GARAIPENAK

Historiak esaten digunez, euskaldunok beste bi garaipen gehiago eduki genituen Orreagan. Bi hauetako lehendabizikoan, 812. urtean gertatu zen, Karlomagnoren armada berriro Iruñearako bidean ipini zenean. Alperrik orain ere bai, euskaldunek ebaindu baitzituzten berriro ere. 824. urtean berriz, Karlomagnoren semea zen Ludovico Pio enperadore berriaren armada, Iruñea hartzeko prest, Euskal Herrian sartu zitzaigun. Eta berriro ere garaipena

euskaldunon alde egon zen Orreagan. Gaurko zenbait etsairi ez ote zaie Orreagako pausu estuetatik igarotzea? Ez al dute horren beharrik? Baina bazter ditzadan nire ilusio hauek eta irakur dezagun bukatzeko iruinxemea zen Kanpionek kantatutakoa:

"Itzaltzuko koblakaria kantari ari zen. Euskaldunak azkonak zorrozten, indarrak elkartzen eta Orreagako gatazkan, lehen aldikotz, Karloman eta dotze pareak galtzaile atetira ziren. Orreagako gatazkan irrintziak goraka, harriak biribilkolika. Euskal Herriak erakutsi zuen nor zen".

Joseba Aurkenerena Barandiaran

INDEPENDENTZIA!!



**Orreagan
eta orain
ikur eta
mezu berbera:
INDEPENDENTZIA!**